

MADALENAK

BIDASOA.HITZA.EUS
OARSOALDEA.HITZA.EUS

ERRETERIA-ORERETA 2023

Gaur hasiko dira 2023ko Madalen Jaiak. Hilaren 25eko 00:00ak arte 101 orduko festa aroa izango dute aurrez aurre oreretarrek eta bertara etortzen diren guztiek. Aurten, gainera, egutegiak keinua egin die madalenei, asteburu, zubi eta jaiegun artean egoki iritsi direlako datak. Gaur arratsaldean dira txupinazoak, baina hala ere, aurretik ere badira giroa berotuko duten ekitaldiak.

Erreteria-Oreretako festetako ikur nagusienetakoa *Zentenarioa* da, gaur behintzat bai. Baina pasodoble hori nortasun osoko festa batzuen doinu banda da. Izan ere, jai batzordea osatzen duten eragileek —dozenaka dira— mimoz eta ilusioz prestatu dute ia 140 ekitaldi biltzen dituen egitaraua, eta ziur, nork bere txokoa izango duela horietako askotan. Hauteskunde batzuekin egingo dira, gainera, madalenak. Beraz, demokrazia ariketak, herri-gintza ariketarekin bat egingo du datozen egunetan. Baina irabazlea garbi dago zein izango den: herri giroa, beraz, herritarrak. ✕



Beti errespetuz
eta txukun...

Goieko
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTOAK

...ongi pasa
madalenetan!

Irunen eta Beran

aurkituko gaituzu

943 63 45 36

www.goieko.com

MADALENAK

URKO ETXEBESTE PETRIRENA

Gaur hasiko dira 2023ko Madalen Jaiak. Jai batzordeak denentzako ekitaldiak antolatu ditu, 140 inguru. Baina herri-tarren parte hartzerik gabe ez dira denak izango. Ahalegin hori egin dute batzordekideek: antolatu dituzten guztietara ahalik eta errenteriar gehien joan daitezela desio dute, denentzat antolatu den hori denena izan dadin.

Gaurko 19:00etatik hilaren 25eko 00:00ak arte 101 ordu daude. Horiek guztiak dira oreretarrek eta bisitariak festa giroan gozatu ahal izango dituzten orduak, pandemia jada atzean utzita.

Aurten ere hiru txupinazo izango dira. Lehena, gaurko 18:00etan: Mila Koloretako Txupinazo Txikia Koldo Mitxelena plazan, haurrentzat. 19:00etan, berri, Gernika plazako Holi Festan bilduko dira gaztetxoak madalenei «kaixo» esateko, eta ordu berberean, baina Herriko

Denentzat dira, denenak izan daitezela

Gaurko hiru txupinazoekin hasiko dira aurtengo madalenak. Jai batzordeak denen gustuak asebate ditzakeen egitaraua prestatu du, baina ekitaldien zerrenda horrek herritarrak behar ditu.

Plazan, txupinazo nagusia: Gurutze Gorriko eta Juneren Hegoak elkarteko kideek herritarren aitortza jasoko dute, madalenen hasierako txupina botatzearekin batera. Nagusi hori Gamon Zumardian ikusi ahalko da, pantaila erraldoian. Erne: jai batzordeak eskatu du Herriko Plazakoa ekitaldi garbia izan dadila, denentzat den jaien hasiera hori denena izan dadin.

HERRI ZAINTZAILEA

Jaien egitarauaren hitzaurrean Aizpea Otaegi alkateak aipatu du eguneroko kezka alde batera uzteko egunak direla madalenak. «Finean, herri honekin eta elkarrekiko dugun konpromisoa» berri-

tzeko egunak direla, alegia. Konpromiso horretan sakonduz, Errenteria herri zainzailea dela nabarmendu du, eta baikoitzak bere erara eta maite dituenekin bizi behar dituela festak: «Begi bat norberaren gozamenen, bestea ingurukoe-tan jarrita. Eraso sexistak, LGTBifobak, sexu erasoak, arrazistak edota bestelako desberdinkeria eta boterekerian oinarritutako erasoek inolako tokirik izango ez duten jaiak nahi ditugu. Eta hori guztion ardura da».

Kezka berbera partekatu du jai batzordeak: «Denok jaiez libre gozatu ahal izatea nahi dugu, eta horri begira, eraso sexistarik gabeko madalenak helburu dituzten neurriekin bat egin dugu,

www.iparaseguroak.com

IPAR
aseguroak

Nafarroa etorbidea, 75 - behe Errenteria. Tel.: 943 34 11 27

IES KOLDO MITXELENA BHI

ESKOLA PUBLIKOA, KALITATEZKOA ETA GERTUKOA

**Etorkizunerako
hazia ereiten**

Galtzaraborda etorbidea, 43. - P.K. 20100 - Errenteria
Tel.: 943 89 95 00 / www.koldomitxelena.com

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



FESTEN JARRAIPENA, EGUNEZ EGUN, OARSO BIDASOKO HITZA-REN WEBGUNEAN

Asko dira jai egitarauaren barruan jasotako ekitaldiak. Horri begira, OARSO BIDASOKO HITZA-k gaurtik hasita eta egunero-egunero interesgarriak izan daitezkeenetan fokua jarri, eta *oarsoaldea.hitza.eus* webgunean mundura zabalduko ditu testu, argazki galeria eta bideo bitartez. Horrez gain, madalenetan zer eta non den jakiteko egitaraua ere badu heda-bideak, Agenda atalean.

Errenteriako Udalak ere festen jarraipen berezia egingo du *herribizia.eus* weborritik. Gaurko txupinazoa bertatik jarraitu ahal izango da, zuzeneko emankizunean.



MADALENAK 2023 - ERRETERIA-ORERETA

emakumeek ez dutelako ausartak izan behar, libre baizik». Horren harira, jai batzordeko kideek zein herriko ostalarrien eraso matxisten aurrean egin beharrekoaren gaineko formazio ikastaroa jaso dute.

Jai batzordearen apustu garbia izan da jaiak denen gozamenerako izatea. Herri plurala da Errenteria-Orereta, eta aniztasun horrek madalenen egitarauan ere badu tokia. «Jaiak prestatzen gozatu dugun adina gozatu dugu festak bizitzten, eta herritarrek ere hala goza ditza-zuen nahi dugu», nabarmendu dute batzordekideek. X

Gaurko 18:00etan izango da Mila Koloretako Txupinazo Txikia, Koldo Mitxelena plazan. U. E.

OTORDU
PLATER PRESTATUAK

Tel.: 943 52 97 26
Andre Mari kalea, 17. Errenteria-Orereta

Asesoria
Elicegui, s.a.
www.asesoriaelicogui.com

Ondo pasa Madalenak!

Nafarroa Etorbidea, 69. Errenteria
info@asesoriaelicogui.com

943 51 76 45 722 24 48 91

Albistur

Mantentze eta berritze-lanak

ALBISTUR ERAIKUNTZAK

Gora

madalenak!!

Proiektu eta berrikuntza orokorrak - Arreta pertsonalizatua

BULEGOAK: Biteri kalea 3, behea . SUKALDEEN ESPOSIZIOA: Biteri kalea 2, behea
943 52 78 01 - 665 727 764 - www.albistur.es



OMENDUAK

Besteen aldeko lan boluntarioari aitortza

Gurutze Gorria eta Juneren Hegoak elkarteak dira aurtengo madalenetako omenduak. Gaurko txupinazo nagusiaren ekitaldian haiek izango dira festen hasierako erdigunean.

URKO ETXEBESTE PETRIRENA

Gurutze Gorria eta Juneren Hegoak elkarteak izango dira aurtengo madalenetan herri aitortza jasoko duten erakundeak. Gaur udaletxean izango dira txupinazoaren erdiguneko protagonista bezala. Gainerakoan, hala nahi badute, udalak jaietan zehar antolatutako erakunde ekitaldietan leku berezia izango dute. Herriko norbanako, elkarte eta eragileetatik aurkeztutako proposamenek izan dute oinarrian bi eragileek aitortza jasotzea herriko festetan.

Gurutze Gorria mugimendu humanitarioa da, eta herrian 50 urte daramatza lanean. Zaurgarrien diren eta beharra dutenen artean eragiten dute, betiere lan boluntarioan. Mende erdiko etenik gabeko zeregin horretan, besteak beste, sorospen lanetan, pertsonak gizartera-



Udalbatzak bi elkartei harrera egin zien ekainaren bukaeran. **HITZA**

tzeko laguntza ematen, zaurgarrienak enplegura hurbiltzen, sorospenerako prestakuntza ematen, elikagaiak banatzen, edo jostailuak zein eskola-materiala jaso eta beharra dutenen artean banatzen izan dira. Hori eskertu nahi izan du herriak.

Horretan jardun duten errenteriarrak asko eta asko izan dira. «Gurutze Gorriaren jarduerak errekonozimendu handia dute, eta biztanleriaren memoria kolektiboaren parte izatea lortu du erakundeak», azaldu du Errenteriako Udalak.

JUNEREN HEGOAK

Juneren Hegoak elkarteak herrian sortu zen 2013. urtean. Kalteberatasun egoeran dauden haurrak dituzten eta gaixotasun, heriotza edo dolu esperientzia bi-

zitzen ari diren familien alboan egotea eta orientazioa ematea dute xede. Hala, hasi zirenetik 60 familia baino gehiago artatu dituzte euren boluntarioen bitartez.

Barne-lan horrez gain, egiten dutena kanpora azaltzeko herrian hainbat ekitaldi eta festa kutsuko jarduerak egiten dituzte, besteak beste Juneren Hegoak Eguna. Gainera, zine programazio egokitu, elkarten arteko elkarlana, edo eskoletako sentsibilizazio jarduerak ere burutzen dituzte.

Madalena bereziak izango dira, beraz, bi elkarteentzat. Gaur izango da ikusgarri, herri guztiaren aurrean, orain arte egindako lanaren aitortza. Edonola ere bihurtik aurrera ere lanean segituko dute, herriari ekarpena egiten. ✕



Jaiak ere #nikerrenterian

Ondo pasa!!!







merkataritzak, ostalaritzak, eta zerbitzu elkarteak
asociación de comercio, hostelería y servicios



ZURE SEAT ETA VOLSKWAGEN
TALDEKO ZERBITZU OFIZIALA
ERRENTERIAN

Ayerdi Motor

Gure bezeroei zerbitzua ematen
esperientzia handia dugu, eta Ayerdi
Motor erreferentzia da autoen salmentan,
banaketan, eta autoen konponketa
zerbitzu ofizial bezala Lezon.



- AUTO BERRI ETA AUKERAKOEN SALMENTA.
- MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA.
- TXAPA ETA MARGOKETA TAILERRA.
- ORDEZKATZE AUTOA.

INSTALAKUNTZAK: Jaizkibel hiribidea, 1 - LEZO. Tel. : 943344525
ayerdimotor@ayerdimotor.com - WWW.ayerdimotor.com

CIFP DON BOSCO LHII



DON BOSCO ALDEA LAN HIRIA
20100 Erreterria
Tel.: 943 510 450
donbosco@donbosco.eus
www.donbosco.eus
PAPER KALEA, 1
20400 Tolosa
Tel.: 943 672 900



Lanbide heziketa baino askoz gehiago



ONGI PASA MADALENAK!

Erreterriako Euskal Eskola Publikoak



Cristobal
Gamon LHII

943-89 91 38



Bizarain
ikastola

943-34 16 45



943-89 91 87

MUSIKA BANDA

Emozioz beteko du plaza 'Zentenarioa'-k

'Zentenarioa'-k dantzan jarriko du herria, eta bat baino gehiago hunkitu ere egingo da gaur 19:00etan. Herritarrak bezala, EMKE bandako musikariek ere emozioz biziko dute une magiko hori.

IKERNE ZARATE GARTZIARENA

Atzerako kontaketa betean daude herritarrak arratsaldeko zazpiak jo eta txupinak eztanda egin bezain pronto *Zentenario*-aren doinuak entzun, dantzatu eta abesteko. Berezia da unea herritarrentzat, baita Andra Mariaren Jasokundearen parrokiako kanpoaldeko eskailertan jotzen ariko diren Erreterriako Musika Kultur Elkarteko (EMKE) bandako

musikarientzat. Aitor Mitxelena zuzendari ariko da, eta zuzentzen zein musikari gisa 36. urtea izango du; Nahikari Martinek, berriz, zortzigarrena.

«Guretzat ohorea da plazan egotea, leku pribilegiatu batean gaude eta ikustea jendea lehen notak entzuteko zain ikaragarria da. Aurretik urduritasuna ere sumatzen dugu, baina behin jotzen hasita lasaitzen gara», azaldu du Mitxelena. Martinek «harrotasuna» eta «poza» aipatu ditu, «jendea *txunpa*,



Nahikari Martin musikaria eta Aitor Mitxelena zuzendaria. Gaur txupinazioan ariuko dira 'Zentenarioa' jotzen.

Ikerne Zarate

txunpa abesten entzutea eta ikustea izugarria da, gazteak zein beste adineta-koak. Urduritasun denak desagertzen dira eta dena bakarrik doa». 1920. urtean Jose Mari Iraola igeldoarra zuzendari zela jo zuen bandak lehenengoz *Zentenarioa* jaia hasteko. Jose Erbitirena zen doinua, eta lehen unetik jaso zuen herritarren onespina. Urteen poderioz festen ikur bilakatu zela esan du Josu Mitxelena EMKEren lehendakariak.

Bandaren zuzendariak bere ibilbide luzean zehar izandako anekdotetatik bat nabarmendu du: «Garai batean udaletxeko arkupe azpian jartzen ginen, eta arrautzez eta zikinkeriz beteta amaitzen genuen musikariek. Gaur egungo koka-

Lete
itzulpenak
www.lete.net

administrazioa . publizitatea
liburuak . enpresa

Tel.: 943 515 346 • lete@lete.net
www.lete.net

Biteri kalea 37 - ERRETERIA
Tel.: 943 52 35 14

GAZTEENTZAKO MODA
44-52 NEURRIAK

orereta ikastola
AURRERA!

ATERA KALERA,
KALE EGIN GABE!
GORA MADALENAK!

erriola
gunea

www.oreretaikastola.eus



lanean; 55 musikari izango dira EMekoak, eta gainontzekoak musika eskolako bandakoak, eta musika bandatik pasa den jendea izango dira. *Zentenaria*o prestatzeak lanketa handia eskatzen ote dien galdetuta, ezetz esan du Martinek: «Batere ez [barrez]. Behin-edo entseatzten dugu, dagoeneko mekanikoki dugu hartuta. Hainbeste urtean jotzen ibilita entsegu batekin nahiko».

Egunaren zailena, berriz, musikariak antolatzea izaten omen da, «bakoitza

bere lekuan jartzea, gero bi ordu baino ez ditugu ibilbide osoa egiteko». Txupinazoa ardurarik gabe bizitzeko tentaziorik sumatzen ote duten galdetuta argi dute: «Ez genuke aldatuko. Guri jotzea dago-kigu une horretan, eta gustura egiten dugu. Oso polita da sentsazioa».

Urduritasuna sumatuko dute Mitxelenak eta Martinek gaur txupinak ez-tanda egin arte, gainontzeko musikarien antzera, baina argi dagoena da, denaren gainetik, gozatu egingo dutela. X

penarekin ez du zerikusirik». Bertara iritsi aurretik Kapitain Enea kalean ere izan zuen kokaleku bandak, baina bertan ere txupinazoaren albo kalteak ere jasotzen zituzten, «gaur egun jaiaren barruan sentitzen gara, erabat».

Mitxelenak [Aitor] zein Martinek aitortu dute *Zentenaria*o jotzea beti berezia bada ere, txupinazoaren une hori «ikaragarria» dela: «Egia da momentu bakoitzak bere berezitasuna daukala. Pablo Iglesias kaleko malda jaisten dugunean jendea zain izaten dugu; une hori ere berezia da —aitortu du zuzendariak— baita Santa Klara kalera sartzea ere. Urtero jende bera aurkitzen dugu puntu gehientsuenetan, entzierroetan bezala, bakoitzak bere trama dauka *Zentenaria*o-n».

Ehun musikari inguru arituko dira gaur jaiei merezitako hasiera emateko

INDIOROCK

«Jende dezente etortzen zaigu, 'feedback' oso ona ematen dute, eta oso eskertua»

IKER EIZAGIRRE 'INDIO'
INDIOROCK-EKO
ANTOLAKUNTZAKO KIDEA


ERIK GARTZIA EGAÑA

Madalen Eguneko *tradizio* bilakatu da Indiorock. Zortzi kontzertu programatu dituzte, hainbat gunetan, estilo ezberdi-



E. Gartzia

OIHALAK
ARTILEAK
IKASTAROAK



GOZATU MADALENAK!

Nafarroa hiribidea, 28
ERRETERIA-ORERETA
tel.: 843 67 17 34
@blazmo_woo!

Fauna y Flora
HANDCRAFTED JEWELRY INSPIRED BY NATURE

HOFF
carhartt
VOLCOM
Loreak Mendian NÜMPH

KALIMA

emakume eta gizonentzako arropa eta osagarriak

Biteri 25. Erreteria-Orereta. Tel.: 943510372



Zure jostailu denda

IKUSI MAKUSI

Ongi pasa madalenak!

- Jostailu hezitzaileak
- Punta-puntako markak
- Kalitatezko jostailuak

Tel: 943 52 88 53
Alfonso XI kalea, 3. Lokala. Erreteria - Orereta

netakoak. Iker Eizagirre *Indio*-k kontatu ditu xehetasunak.

Hau da hamargarren ekitaldia. Nola hasi zineten kontzertuak antolatzen?

2012an hasi ginen. Lehenago, Landare tabernan kontzertuak antolatzen nituen, eta gero salto egin genuen kalera, madalenetan kamioi baten gainean antolatzen ziren kontzertuekin, Maria Lezo kalean bertan.

Herriko eta inguruko taldeei aukera eman nahi genien, baita gune berriak sortu ere. Horrela hasi nintzen. Ideia neukan, eta lagun on asko [barre egin du]. Sei lagun elkartu ginen; musika tal-



Oiartzo
etorkizunerako bidelagun

IKASTOLA EREDUA

**Gora Madalenak
Eta biba zuek,
gazteak!**

www.oiartzoikastola.eus

dea zeukan baten batek, eta haien ekipo-arekin hasi ginen.

2018an ez genuen egin, Zituenerekin hasi ginelako. Pandemiarekin formatua aldatu zen; zortzi kontzertu beharrean lau antolatu genituen, eta guztiak toki berean izan ziren.

Zerbait bereziarekin ospatuko duzue?

Aurtengo ekitaldirako aurrez jo duten hainbat talde ekarri nahi genituen, baina baten bat lortu dugu: Katanga Dub, Noa & Hell Drinkers... Baina gainontzekoak berriak dira. Festarekin bukatzeko, DJa jarriko dugu txosnetan, Dantzall Sound. Hori da berritasunetako bat.

Uztailaren 22a egun gogorra izan ohi da parrandazaleentzat. Indiorockek zer nolako erantzuna izan ohi du?

Oso ona. Pasatzen naiz kontzertu guztietatik, baina ez ditut bost minutu baino gehiago ikusten, ez didalako denborarik ematen. Hurrengo egunetan, hori bai, jende dezente etortzen zaigu; *feedback* oso ona ematen dute, eta oso eskertua. Gainera, ez da ohiko formatua. Ibilbidea egin beharrak badu zera hori.

Esan duzu bost minutu bakarrik ikus ditzakezula. Asebetetzen al dizu, hainbeste lan egin eta gero?

Gusturago egongo nintzateke kontzertuak osorik ikusten, baina gustuko dudana da ikustea ekarri ditugun talde horiek ongi eta eroso daudela: zaintzea, mimatzea... Agertokian egon ondoren beraiekin hitz egin eta ederki egon direla jakitea...

Gune bakoitzean arduradun bat dago, baina atzera eta aurrera ibiltzen naiz, eta ezin naiz asko geratu. Hala ere, ikusten dudana apurra, gustatzen zait. Eta are gehiago, haiek gustura ikustea. Horrekin kontent geratzen naiz.

Talde asko pasatu dira ekitaldi hauetan guztietan. Ba al duzu momentu gogoangarririk?

Dezente egon dira, baita harrituta utzi nautenak ere. Gustatzen zait plaza beteta ikustea, taldearen pozerako. Ez da gauza bera kontzertu bat lau katurekin ikustea... Ikusten aritu naiz zein musika estilo edo talde motak funtzionatzen duen toki bakoitzean, eta horren arabera nola egokitzen diren. Iaz Harresian Zulo txosnetan, Noa & Hell Drinkers pande-

miaren aurretik, iaz Trilitak Gailurren... Bestalde, Leku Zaharra tabernako gunean giro oso polita sortzen da.

Eduki aldetik, zer espero da?

Urtero bezala, estilo eta musika ezberdinak egongo dira. Raitx bakarlariarekin hasiko gara Gailurren, Piko bakarlaria gero arituko da Euskal Gunean, txosnetan Oiartzungo Hamabi, Gailurren Kantanga Dub taldea saltsazalea, Odei Barroso raperoa dator, Kristonak rockeroa goa bukatu baino lehen...

Larunbatean egokitu da aurtentzen...

Iaz ostirala izan zen, eta nahiko jendetsua suertatu zen. Eta aurtentzen larunbatearekin... ea zer datorkigun gainera! Hilaren 22an gauza asko daude. Hori bai, hurrengo egunean Kuadrillen Eguna izango da, eta jendeak indarrak gordetzen ditu. Hasieratik esan genuen ez genuela oso berandu bukatuko — 03:00etan—. Ordu polita da etxera lo egitera joan eta biharamunean Kuadrillen Egunarekin gozatzen jarraitzeko. X

GARBIKETA

Kalea garbi egotea denen ardura da

42 langile arduratuko dira madalenetan herriko kaleak garbi mantentzeaz, eta gaur hasiko dute beren jarduna txupinazoarekin. Udalak, gainera, totemak eta igluak jarri ditu herritarren eskura.

MIKEL DEL VAL

Atzera kontaketa bukatu da: hemen dira 2023ko madalenak. Herriko festek gaurko 19:00etan egingo dute eztanda ofizialki, elkarte omenduek udaletxeko balkoian suziria pizten dutenean. Une

horretan, Errenteria-Orereta bost eguneko jai giroan murgilduko da, eta herritarrek kaleak hartuko dituzte. Herriko festak kalean egoteko egunak dira, eta herritarren eta bisitarien joan-etorriak nabarmenak izango dira festek irauten duten denboran; eta, nola ez, hondakin mordoak sortuko da festa giro orotan be-



zala. Txupinazo ondorengo momentutik, garbitzaileek beren jardunari ekingo diote, herria egunero garbi egon dadin.

Orotara, 42 langile arduratuko dira madalenetan herria garbi mantentzeaz, eta gehienbat herriko erdigunean ibiliko direla jakinarazi du Bernar Lemos Hiri Mantenuko zinegotziak. Txupinazo nagusiaren ondoren, zazpi langilek ekingo diote Herriko Plaza garbitzeari.

Txupinazoa madalenen une hunkigarrienetako bat da, jaiari hasiera ematen dielako, eta jendetza biltzen da udaletxe parean. Hondakin mordoak pilatzen da, eta honakoa aldarrikatu du Lemosek, jendeak eramaten dituen produktu bartzuen inguruan: «Txupinazoa bukatuta, langileek Herriko Plaza garbitzen dute, baina kamioiak ezin du 21:00ak arte sartu. Kamioiaren lana da garbiketa errematatzea. Hori dela eta, jendeari eskatuko nioke irina eta ketchup bezalako

LANDARE TABERNA

Maria Lezo Kalea, 3. 20100 Orereta - Tel.: 943 51 00 31



GORA MADALENAK! KABALA

etxe - animalientzako pentsu eta osagarriak

943 53 57 51 / 605 76 52 14
Erdiko kalea 16. Errenteria. kabaladenda@gmail.com






Oartzun

FORTALEZA 1786

Ongi pasa madalenak!

FORTALEZA1786.COM

Ergoingo bidea 15. Oartzun - Tel.: 943 71 37 70






Txupinazo nagusiaren ondoren hasiko dute garbitzaileek beren jarduna. Hondakin mordoak biltzen da Herriko Plazan. **Olaia Gerendiain**

produktuak ez eramatea, pasta bat sortzen dutelako lurrean. Kamioia ez da bi ordu geroago arte pasatzen, eta zorua irrastakor uzten du pasta horrek, arriskutsua izan daiteke jendearentzako».

GOIZEKO LEHEN ORDUAN

Gainerakoan, garbitzaile brigada goizean goiz hasiko da jardunean, herria garbi mantentzeko helburuarekin. Horrez gain, ura erabiltzen dutenean, garbitzaileek limoi usaineko produktu bat gehitzen diotela jakinarazi du Hiri Mante-nuko zinegotziak, «usainarentzako eta higiene kutsu bat» emateko.

Errenteriako Udalak ere hainbat baliabide jarriko ditu herritarren eskura. He-

rriko hainbat txokotan bederatzi totem jarriko dituzte, batez ere erdigunean. Totemez gain, bost iglu ere ahalbidetuko ditu udalak hondakinak botatzeko.

Madalenetan hondakin mordoak sortuko bada ere, Ostari Ostalarien Elkarteak eta udalak ingurumenaren aldeko

«aletxoak» jarri dute. Ostarik 10.000 edalontzi berrerabilgarri erosi ditu festetarako «hondakin plastiko gutxiago» sortzeko xedearekin. «Ideia da edalontzia norberarentzako izatea eta edalontzi berrerabilgarriak erabiltzeko ohitura hartzea», esan dute Ostariako kideek. X

EDURNE
Loradenda
Alfonso XI z/g - Niessen merkatalgunea - Tel.: 943 51 70 58

BOKATAK
HAMBURGESAK
SANDWICHAK
ENTSALADAK
PINTXOAK
RAZIOAK

BALEA TABERNA
Gamon Zumardia 16
Errenteria-Oreeta
Tel.: 689 46 13 37

Ondo pasa **rosmi** madalenak!

JAIETARAKO JANTZIAK:
ZAPIAK, TXAPELAK, GERRIKOAK...

Foru plaza, 21 . 943 511 887 . Errenteria

OBEA-2
ORTOPEDIA

BIDASOA, 3
MUSIKA PLAZA
TEL.: 943 52 93 01
ERRENTERIA-ORERETA

- AHOLKULARITZA FISKAL ETA LABORALA
- TRAFIKOKO AGIRIEN KUDEAKETA
- AUTONOMOAK - ESKRITURAK

SALSAMENDI
www.gestoriasalsamendi.com **GESTORIA**

Maria Lezo, 5 . Errenteria. Tel.: 943 52 43 02

ALABERGAKO DANBORRADA

Alaberga, danborrak astintzeko prest

«Ilusioz eta arduraz» ekingo dio gaurko 23:00etan Alabergako danborradak bere ohiko ibilbideari. Aurten, gainera, mugarri izan den erabaki bat hartu dute: danborradaren batzordea sortu dute.

MIKEL DEL VAL

Madalenek indartsu eta ozen egingo dute eztanda gaur 19:00etan udaletzeko balkoitik. Txupinazoa jaurtitzearekin batera, Errenteria-Orereta bost eguneko jai giroan murgilduko da. Errenteriako

Udalak, jai batzordeak eta eragileek gustu eta publiko guztiak aintzat hartu dituen programazioa osatu dute, jarduera mordoarekin. Jarduera horien artean, nola ez, danborradak daude. Orotara, bost izango dira herriko kaleak danbor doinuez girotuko dituzten danborradak, eta HITZA ibilbide luzeena daraman

danborradarekin elkartu da: Alabergako danborradarekin.

Alabergako Arditurri Auzo Elkarteak antolatzen du danborrada, eta 60 urte inguruko ibilbide oparoa osatu du jada. Aurten, baina, danborradarentzako mugarri izan den erabaki bat hartu dute, Alabergako Danborradako Batzordea sortu baitute, hamaika pertsonaz osaturikoa. Batzordeko kideek adierazi dute komisio hori sortzeko xedea izan dela eginbeharrak banatuagoak izatea, danborradari dagozkion erabakietan parte hartze handiagoa izatea, eta kideen arteko komunikazioa erraztea. «Pertsona gutxi batzuek zeramaten pisuaren zama handiena, eta hori bideraezina da. Gure helburua izan da danborrada parte hartzaileago bat eratzea, eta batzordeak asko erraztu du gure arteko komunikazioa, danborrada osatzen duten esparru ezberdinetako jendea baikaude batzordean», esan dute batzordearen sorreraz.

Ohikoa den bezala, gaurko 23:00etan hasiko du Alabergako danborradak bere ibilbidea, Deiadar txarangarekin batera. Batzordeko kideek aitortu dute «gogotsu» daudela kalera irten eta danborrak astintzen hasteko. Auzotik abiatuko dira 180 parte hartzaileak, eta herriko kaleak danbor hotsez alaitu ondoren, 00:00etan bukatuko dute bidea Herriko Plazan. Bertan, udaletxe aurrean, Zente-narioa doinu mitikoa joko dute.

Zentenariora-ren une hori «ikaragarria» dela onartu du batzordeak: «Udaletxea jendez lepo egoten da, eta herri-tarrek asko babesten gaituzte, bai gu eta baita beste danborradak ere». Batzordea

Martin Etxeberria kalea 4
Errenteria
Tel.: 943 52 55 84



GORA MADALENAK!

HARATEGIAK



Ongi pasa! **ERRENTERIA**

NIESSEN MERKATALGUNEA
Errenteriako Azoka, 12 - Tel.: 943 51 63 13
BERAUN. Aita Donosti, 6 - Tel.: 943 51 93 21
IZTIETA. Oartzun kalea, 11 - Tel.: 943 34 10 67
FANDERIA. Fanderia etorbidea, 17 - Tel.: 943 34 15 55

SINDIKATO

--- KAXUELITAK --- PINTXOAK --- **TABERNA**

--- PLATER KONBINATUAK ---

--- OGITARTEKOAK ---

Ongi pasa madalenetan!

Madalena kalea, 38 / 943 34 61 83 / Orereta



Herriko Plaza 7 Tel.: 943 52 46 87

harago joan da, eta danborradak euren gan duen eraginaz ere mintzatu dira. Batzordeko kideetako bat bost urterekin hasi zen danborradan parte hartzen, eta bost hamarkadaren ondoren, bertan jarraitzen du, tinko: «Niretzako madalenetako ekitaldirik garrantzitsuena da danborrada. Ondoren datoz jaietako gairontzeko jarduerak. Uztailaren 21eko Zentenarioa jotzea txupinazioa eta Xanti eta Maialenen lehen agerpenaren pare jarriko nuke, madalenen hasieraren berbiziko hiru ikur dira».

ILUSIOA ETA ARDURA

Alabergakoa Erreteria-Oreteran dagoen danborrada zaharrena dela gogorarazi du batzordeak. Ez hori bakarrik, «herri guztiari irekia» dagoen bakarra dela esan dute harro, beste batzuk «itxiagoak» baitira haien ustez. «Herriaren danborrada» bezala definitu dute Alabergakoa batzordekideek. Aurten 180 pertsonarekin ekingo dio danborradak ohiko ibilbideari, eta oroitarazi dute jende gehiago ez jasotzea, ez dela ez dutelako nahi, «teknikoki oso zaila» delako jende gehiago elkartzea baizik.

Momentu honetan, Alabergako danborradak «eskaera handia» duela zehaztu dute, eta bi urteko itxarote zerrenda dute bertan parte hartzeko. Batzordeak onartu du «ilusio handia» egiten diela parte hartzea, askorentzat «lotura emozionala» ere baduelako. Ilusioaz gain, «ardura» puntu bat ere badutela aitortu dute: «Uztailaren 21a da, eta ardura dugu Herriko Plazan ondo jotzekoa eta jendea gustura egotekoa». X



Herriko Plazan bukatzen du bidea Alabergakoa danborradak. ARDITURRI AUZO ELKARTEA



- GIDABAIMENA A1,A2,A,B
- CAP IKASTAROAK
- ADR IKASTAROAK
- KARRETILLA
- IKASTAROAK

Biteri kalea 20. Erreteria-Oretera. Tel.: 943 515 050

GORA MADALENAK!!

CASAMAYOR

JANTZIGINTZAK ————— 1964

Irun kalea 6, Erreteria-Oretera. Tel: 943 51 31 46



Gora madalenak!

PINTXOAK - RAZIOAK - OGITARTEKOAK

Gamon Zumardia, 12 Erreteria
943 55 86 25



www.herboristeriapaki.com
info@herboristeriapaki.com
Biteri kalea 4 -20100 Erreteria
Tel.: 943 51 68 93



la coquine

La coquine deco

Dekrazioa
eta opari bereziak

Ongi pasa Madalenetan!



Foruen plaza 20, Erreteria • 943 905 774 • 610325416

zatoz gure denda ezagutzera!



Dena prest dute Esmalteria zaharra zegoen tokian plaza berritua eskaintzeko. **Erik Gartzia**

Erriola Gunea, izen berriarekin aukera zabalagoa betiko tokian

ERIK GARTZIA

Orereta Ikastolaren komunitateak urteak daramatza Koldo Mitxelena plazan txosna jartzen. Nagusiki eskaintza gastronomikoa eman du, baina iaz «ariketa txiki bat» egin zutela gogorarazi du Mikel Leitzak, antolakuntzan dabilenetako

batek. «Andoni Ollokiegi eta Asier Burgete oholtza txiki batera ekarri genituen, ikusteko nola funtzionatzen zuen, eta aurten zerbait zabalagoa eta handiagoa egiteko asmoarekin», esan du Leitzak. Aurten Kilometroak festa egitea «aproposa» izan dela zehaztu du, guneari «bultzada» emateko: eskaintza gastro-

nomikoari kulturarena gehituko zaio. Berritasuna izango du, gainera: izena aldatuko diote. Erriola Gunea izango da aurrerantzean. «Kilometroak festa pasatuta, nolabaiteko arrastoa uztea nahi genuke». Plaza berri bat sortu nahi zuten, eta egunero ekitaldiren bat egongo da. Leitzak aurreratu duenez, 01:30 inguruan itxiko dute gune berritua. «Orain arte funtzionatu duen hori mantendu nahi dugu: familiak, haurrak, helduak biltzen duen gunea izatea... arau batzuk errespetatzen», iragarri du.

Egitarauari errepassoa eman dio, kronologikoki: ikasleen ekitalditxoak, eta bertso musikatu saioak; Asier Burgete eta Bengoren emanaldiak; Ereinekin elkarlanean osatutako *Erriola sutan* ikuskizun piroteknikoa, eta DJ Ikerren *pintxada*; Andoni Ollokiegi, Kai Nakai eta Naizen elkartekoak; erraldioen topaketaren aitzakira antolatutako herri bazkaria eta Iñaki Labaka eta lagunak. «Ongi ateratzen bada, baloratu eta eskaintza errepikatuko dugu datozen urteetan». X

Aiton-Etxe
EGUNEKO ZENTROA

DIPUTAZIOAREKIN HITZARTUTA
PLAZA PRIBATUAK ERE BADITUGU

943 49 21 46 - 688 68 60 42 - OIARTZUN - www.aitonetxe.com

JAKIN S.L.

AHOLKULARITZA
ASEGURUAK
ERA GUZTIETAKO
GESTIOAK

www.jakinservicios.com

Morrongilleta 11-13. 270 Posta kutxa . Errenteria. Tel.: 943 51 96 88 - 943 52 75 32. Faxe: 943 51 60 04



Ikerne Zarate

Etxera Eguna antolatu du Sarek, astelehenean

Euskal errepresaliatuek haiei begirako eguna izango dute jaien barruan, astelehenerako Orereta-Errenteriako Sarek antolatutako Etxera Egunean. Herri bazkaria egingo dute oilasko karpan 14:30ean; txartelak ohiko lekuetan dira salgai. 22:00etan, berriz, danborrada abiatuko da Juan Olazabal kaletik: 350 lagunek parte hartuko dute. Aurretik, baina, beste hitzordu bat egin dute: gaur bertan, 19:30ean, «etxeratzearen aldeko brindisa» izango da oilasko karpan.

Akelarre feministan parte hartzeko deia

Akelarre Feminista berrartuko du Zirika Neska Gazte taldeak aurten. Bihar egingo dute—larunbata— 00:30ean, Gaztetxetik abiatuta. Hura prestatzeko hitzordua 23:30ean egin dute, eta emakume guztiak deitu dituzte parte hartzera: «Prestatu zuen arropa beltzak, akelarrea hastera doa».

Oreretako Asanblada Feministak, bestalde, bazkari feminista antolatu du jaien azken egunerako, hilaren 25erako, zaintza eskubide kolektiboaren alde. 14:30ean izango da Panier gunean, eta ondoren, poteoa. Tiketak 15 euroan salgai daude Sindikato eta Arkaitza tabernetan —langabe eta ikasleentzat 10 euro—. Menu berezia behar izanez gero, @orereta.feministok kontura idatzi.

Txupinazo festa Zintzilik Irratiaren eskutik

Madalenei begira eta 38. denboraldiari ginga jartzeko, hainbat ekitaldi antolatu ditu Zintzilik Irrati Libreak. Atzo zuzenean eman zuen Madalen Aurreko Txistulari Kontzertua, eta gaur txupinazo festa egingo du: irratsaio berezia egingo du 17:00etan hasita, elkarrizketekin, txupinazoaren zuzeneko emanaldiarekin, eta musikarekin. 19:30ean txosna irekiko du jateko eta edatekoekin, eta 20:00etan Lezoko Gonap rock taldearen kontzertua hasiko da.

Udan ez da programaziorik izango. Baina irailetik aurrera 39. denboraldia jarriko du martxan Zintzilik. Horren harira, irratan parte hartzera deitu ditu herritarrak. Sare sozialen bidez jarri beharko dute harremanetan interesdunek.

AUPA MADALENAK!

IZARRA
AKADEMIA
ENGLISH

www.academiaizarra.com
Nafarroa Etorbidea, 59 behea.
20.100 Errenteria
Tel. 943 517 340

albásu
fisioterapia

Olatz Oliveri Vesga Santxo enea 11, Errenteria. Tel.: 640 20 10 77

- Fisioterapia orokorra •
- Erditzerako prestaketa •
- Zoru pelbikoko tratamenduak eta erditze osteko lanketa •

TATTOO **ongi pasa madalenak!**
PIERCING

NAIZ

Madalen kalea 3
Errenteria
665 72 24 65

ATERPE
HIGIEZIN
AGENTZIA

Gozatu madalenak!

- Alokairuak eta Salmentak.
- Bermea + Segurtasuna.
- Aterpe Agentzia beti irtenbideak proposatzen.

Tel.: 943 52 36 94
www.aterpe.com

BENETAN
CORREDURIA DE SEGUROS
ASEGURUAUAK

ONGI PASA MADALENETAN!

ASEGURUAUAK
Tel.: 943 34 49 40
benetan@benetan.net

Biteri, 17, behea. ERRENTERIA
(sarrera Morrongilleta kaletik)

FINKA-ADMINISTRATIOA
Tel.: 943 34 49 42 / afinse@afinse.com

AFINSE
SERVICIO INTEGRAL DE ADMINISTRACION DE FINCAS

Madalenak 2023 ERRETERIA

uztailak 21-25 de julio



21

SEGA SOUND KILLERS

Lino gunea 23:00

NEOMAK

Zumardia 1:00



22

JANUS LESTER

Zumardia 1:00

BENGO

Erriola gunea 23:00
Koldo Mitxelena plaza

23

LOS ZOPILOTES TXIRRIAS

Lino gunea 23:00

LIHER

Xabier Olaskoaga plaza 23:30

24

KAI NAKAI

Erriola gunea 23:00
Koldo Mitxelena plaza

OIHAN VEGA

Zumardia 00:00



+20

Txistularien Kontzertu Nagusia
+ Josune Arakistain
Zumardia 20:00

REINCIDENTES

Zumardia 00:30

25

SONAKAY

Xabier Olaskoaga plaza 19:00

